

Noqua!!

U S K A R A R A

2002ko uztailaren 19a VII.urtea

Usurbil 40. zenbakia



**Euskararen plan
estrategikoa definituko du
azterketa soziolinguistikoak**

USURBI L

GIDARI-ESKOLA



%20ko deskontua matrikulan!

MATRIKULA ZAITEZ!

Kale nagusia, 5
Telf: 943 36 27 93 - 651 70 37 71

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.

KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8


GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUA.
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK,
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN. KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUA.


SARRERAK: 500.000 pezeta/rik. HILEKOAK: 15.000 pzt.

MENDIGAIN S.M. FRAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua



Bigarrenengo solairua

✕ BASERRIETARAKO:

Abere elikadurarako produktuen
horniketa eta nekazari lanerako
behar diren produktuak: ongarriak,
fitosanitarioak, tresnak, baratzantza,
haziak, patata, e.a.



✕ LORAZANTZA ETA ETXEETARAKO:

Burdindegia, plastikoak, otarrak, txakur, katu
eta txori jana

✕ BERTAKO PRODUKTUAK:

Ardoa, txakolina, sagardoa,
zainzuriak, piperrak,
babarrunak,...

**ETORRI ETA
EZAGUTU!**

BETIKO "SINDIKATVA" ORAIN BERRITVA, JENERO GEHIAGOREKIN

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14 - E-mail: alkartasuna@fcae.org

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Eider!**
Uztailaren 16an zure lehen urtebetzea ospatu zenuelako. Muxu handi bat zure aiton-amon eta osabaren partez.



Zorionak **hirukote!**
Uztailaren belarriak bero daude gurean. Amatorrenak 6an, aitarenak 7an eta Hilarrenak 15ean. Zorionak elkarri!



Zorionak **Ana eta Joxemai!**

Uztailaren 31ean zilar-etzela betetzen dituzte. Zorionak etxekoan partez eta ondo pasa!



Zorionak **Saioa Erro!**
Uztailaren 12an urteak egin zituen. Ama eta anaien partez, zorionak eta ondo pasa!



Zorionak **Maier, Jexux, Ainhoa eta Eneida!**
Jexuxek eta Maierrek urtebetetze eguna ospatuko dute 23an, Eneidak 28an eta Ainhoak abuztuaren 6an. Zorionak guztioi etxekoan partez eta ondo pasa!



Zorionak **Maialen!**
Uztailaren 10ean 10 urte bete zenituen. Gure etxeko printxesa ere aurrea doa. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!

Hona hemen edonor zoriontzeko tarteak. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri beharrekoa, testua eta argazkia.

Hurrengo alea: **uztailak 26**. Ekartzeko azken eguna: **uztailak 19**.

Jaiotzak

Udane Valin Salaberria

2002-VI-19

Kalezar

Unai Lizarza Aritzeta

2002-VI-22

Arsuaga kalea

Baruk Cerrato Zumeta

2002-VI-26

Bizkarra kalea

Alba, Juan Manuel Garcia Alvarado

2002-VI-30

Mundalurra

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Erizantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 36 28 49
- Gure Paketa 37 32 28
- Gure Elkartea 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epategia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturrigalde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

uztaila

Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

● Hurrengo alea

Udaltzaingoa ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu
deitu telefono honetara

943-361112

Noaua! aldizkaria
Bordaberri, 3
Usurbil
noaua.k.e@euskalnet.net

**Kexaren bat
baduzu, kritika-
ren bat eskuar-
tean badabilkizu edo eta herri-
ko zerbaiteaz hitz egin nahi
baduzu guk ikamikan toki bat
egingo dizuegu.**

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

3er irizten?



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

Kazetarien koordinatzailea

Imanol Ubeda

Kazetariak

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta
Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbiet, Iñaki Agirresarobe, Alex Udabe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza

Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua:

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika,
Garikoitz Udabe, Zaloe Arnaiz eta
Agurtzane Solaberrieta.

Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa

Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta
Kerman Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA:

Uda Jolas-eko haurrak dira azalean jaso ditugunak



Aske izateko grina ezin da ilegalizatu

Arantxa Manterola

Batasunako kidea

Badira hilabeteak onartu berria den Alderdien Legea gora eta behera dabilkigula. Hainbeste hitz egin da honetaz, jende askok gai zaharkituzat ere har dezakeela. Horri heldu nahi diot hain zuzen ere. Komunikabideak (edo inkomunikabideak?) horren botere-tsu diren gizarte honetan, eginkizun estrategikoa jokatzaren dute jendearen pentsaera moldatzeko orduan. Kasu honetan ere horrela dihardute gehienak. Mezu jakin batzuk etengabe errepikatuz, gure burmuinetan sartzen digute beren egia kon-turatu gabe.

Ez da, noski, gaiak garrantzia ez duenik. Justu kontrakoa. Alderdi bat legez kanpo uzteak izan dezakeen eragina ikusteke dago. Eta ez naiz ari Batasunaz bakarrik. Gaur gu baina bihar beste alderdiren bat izan daiteke eta etzi ikastolaren alde egi-ten duen elkarteren bat edo euskara erabiltzeko eskubidea eskatzen duen edonor.

Kontua ez da ETaren bortizke-riarekin amaitzea, herri baten, Euskal Herriaren proiektuarekin amaitzea baizik. Ideia hori, egi-tasmo hori da suntsitu nahi dute-na. Hor baitatza gakoa. Eta, nola ez, hasteko, proiektu horren alde sutsuki, emankortasunez blai eta sufrimendu askori aurre eginez, Euskal Herriko gizartearen zati dinamikoenetakoa suntsitu behar dute. Legea moldatu edo nahi duten bezala interpre-

tatu (Garzon eta konpainiak ohituta gauzkate) eta Espainia-ko zein Frantziako superdemo-kraziak garaile izango dira.

Baina horretarako iritzi publi-koa deritzona prestatu behar dute. Estatuan behar bada errazago egingo zaie baina hemen zailtasun batzuekin topo egin dute. Horretarako, ordea, beste arma dute: jendea gaia-rekin nazka-nazka egitea, erre-pikatze joko horrekin neurri hori hartzen dutenerako gauza nor-mala, espero zena izatea eta gizartearen erreakzioa indarga-betzea.


Lege hau aplikatuko dute, beste batzuk lehen ere aplikatu dituzten bezala; bitarteko eta dirurik gabe utziko gaituzte. Kideak atxilotu eta kriminalizatu-ko dituzte. Esparru politikotik eta instituzioetan baztertzaren saiatu-ko dira omen abertzale diren hainbat alderdiekin elkar hartu-ta. Baina hau guztia ez da berria. Aurrera egiteko grina ez galtzea da inportantea. Siglak ilegalizatuko dituzte baina inongo menpekotasunik gabe, burujabe izateko borondate irmoa, ez. Herri honek aspaldi ikasi zuen bide bat moztan dio-tenean, beste bide-zidorra har-tzen. Hori bai, norabidea galdu gabe: Euskal Herri burujabe eta batua eta ez berriro ere Estatuei loturik mantenduko gaituen itu-nik. Beraz, gure egongelako sofaren zuloan hondoratu gabe, etsipenari lekurik ez.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Imanol Zarautz, *Troia*: “Parrandako bertsolariak gara gu”

Mila saltsatan ikusiko duzue Imanol Zarautz, *Troia*, gaztea. Hala ere, XXVI. Santixabel Bertsopaper lehiaketara aurkezteko denbora hartu zuen. Eta ahaleginak bere fruituak eman ditu. Dena den, hau ez da lehen saiakera. Aurretik lautan eman baitzuen izena. Bigarren eta hirugarren postuak ezagunak zituen. Aurten txapela berarentzat izan da eta urduri baina gustura jaso zuen albistea.

Sorpresa izan al zen, espero al zenuen?

Ez nuen espero, egia esan. Azken egunean nolabait bukatu nituen. Eta entregatu. Saiatu nintzen zerbaite txukuna egiten. Bezperan esan zidate-nean “aurreko bitan hago!” orduan hasi nintzen txapelaren pentsatzen.

Urduri zeunden taula gainean, ezta?

Sari banaketa baino lehen banekien hortxe nengoela, lehena ez banaiz bigarrena izango nintzela. Urduri samar nengoen eta aurretik garagar-do batzuk edanda joan nintzen, badaezpada. Bestela ez nuke korajerik hara igotzeko. Nik ez nuela kantatuko esan nien, normalean lehenak abestu izan du, baina antolatzailerek lehen biek abestu behar zutela esan zidaten.

Urduri nengoen. Ez naiz plaza gizona, saltsa guztietan ibiliko naiz baina gero jende askoren aurreran azaltzea beste gauza bat da. Nik ez nuen batere ondo pasa. Abesten nahiko larri ibili nintzen. Denak buruz nezkizkien baina ezin nuen kantatu, irakurri egin behar izan nuen.

Egoerak gaintitzen zaitu, ezta.

Beste batzuk gaintituko dute baina ni blokeatuta geratu nintzen.

Txapela ondo gordeko duzu.

Kostatu zait, horregatik hau ondo gordeko dut. Nire helburua bete dudala esan dezaiket.

Bertsotarako joera txikitatik al duzu edo nondik datorkizu?

Gu parrandako bertsolariak gara, motel. Afalostean hasten gara bertsotan. Kermanek eta Tolak animatuta bertso eskolan hasi nintzen. Baina batik bat astean behin lagunekin bildu, afaritxo bat egin eta denbora pasatzeko.

Batzuk asko ibiltzen dira, Xabier Sukia eta konpainia. Horien artean jarri eta tarteka aritzen gara, baina inongo pretensorik gabe. Bertsozalea betidanik. Bertso eskolan ere ibili naiz, baina aurten nahiko utzia izan dut. Hala ere, beti



Troiak pozik jaso zuen Santixabel Bertsopaper Lehiaketako txapela.

giro horretan mugitu naiz.

Gaia sakona aukeratu dut eta erraza, era berean. Leku askotatik heltzea dago. Gaia erabiliz jendearengana iritsi nahi nuen.

Soka dantzan ere atera zinen, zer gertatu zitzaizuen alpargatekin?

Aurretik ere atera nintzen, duela lau bat urte pilotariekin. Bezperan gaupasan ginela erosi genituen. Galtzerdiekin probatu genituen dendan baina gero plazara alpargatarik gabe atera ginen. Udaberenak airean atera ziren, nik ere arazoak izan nituen baina nik disimulatu ahal izan nuen.

RAMON BARCENILLA

. Pikor- pintura eta gotele lanak
 . Papereztatze-lanak
 . Pintura-lanak oro har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
 MOBILA: 629 46 09 66



WITZANGA
HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17



BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

SANTUENEA

Alfontso Vidal



Auzoko "obrak" eta festak

Heldu da udara. Heldu da beroa (beno, teorian). Heldu dira festak. Heldu dira gau pozgarriak eta goiz tristeak, baina beti bezala disfrutatzen saiatuko gara. Santixabeletakoak jadanik pasa dira (tartean Santuenean eginiko piragua saioa) eta beti bezala giro ezin hobea aurkitu dugu herrian.

Gurea udarako azken hilabeteetan izango da. Horregatik indar pixka bat gorde egin beharko dugu, udara luzea da eta... Aurten ere lbai Ondo elkarteak antolatuko ditu gure auzoko festak. Egia esan, azken aldi honetan beraiek ari dira antolatzen festak eta egun bat izan arren ederki asko presta-

tzen dute. Esan behar da Santueneako jende asko ez dugula gauza handirik behar ondo pasatzeko.

Bestalde, eta gaiaz aldatuz, Santuenean segitzen dute oraindik "obra"rekin.

Orain zubiaren ondoan gasarentzako "txabola" moduko bat bat egiten ari dira. Denok pentsatzen dugu azkenengo pausak izango direla hauek. Aspaldi aspertuta gaude hainbeste "obra"rekin eta lasaitasuna nahi dugu gure auzoan.

Beno, ondo pasa udara eta udazkenean ikusiko gara.

Agur.



URDAIAGA

Eider Jauregi



Uda tristeia

Dagoeneko uztaila amaierara hurbildu gara eta eguzkiaren arrastorik ez da inon ageri. Klean bizi zaretenok hondartzara joateko aukerarik ez duzuela eta, kexu zarete, baina ez zarete bakarrak. Izan ere, baserrian bizi garenok badugu kexatzeko arrazoirik ere. Nahiz eta, bestelakoak izan.

Azken bolada honetan egin dituen euri jasan ondorioz uztak ondatzen ari dira; porru, tomate, azenario edo letxu landareak, besteak beste, galtzeko arriskuan daude. Aurtengo uztak ur gehiegia eta eguraldi sargoriaren ondorioz kalteak jasaten ari dira, baratzetan bertan egosten ari baitira barazki

guztiak.

Baserrri gehienetan belar bolak egiten dituzten arren, oraindik ere badiara gure auzoan meta belarrak egiten dituztenak, baina hauek egiteko ere arazoak dituzte. Uda honetako eguraldi kaxkarra dela eta, belarrak ondu ezina etorri da eta udan jasotzen ez dena, neguan faltan izaten da.

Baserritarrek eguraldiz gizon guztiekin haserre. Izan ere, eguraldi txarra egingo duela esan eta esan ari baitira. Sasoi honetarako baserritarrek diotenez, belar lanak aurreratuta edo dagoeneko amaituta egon

beharko zuten, baina aurten beste urteetan ez bezala, oraindik hastear daude. Kezka da nagusi. Lanak amaitu nahi eta ezin. Ea ba eguzkiak irten eta sartzeko biderik aurkitu gabe irauten duen gure artean, irte ten bada, bederen!



KALEZAR

Aintzane Aizpurua



San Roke eguna buelta-bueltan

San Joanak pasatu ziren, bai ondo pasatu, gainera. Hala, jaiekin auzoan daukagun hitzordu garrantzitsuena bete dugu, beste behin ere, kalezar-tarrok; baita herriko beste askok ere, hemengo jaiak askok baiti-



tuzte maiteak.

Horiekin ez da, bukatzen, ordea, Kalezarko festa plana, San Roke eguna ere hortxe baitugu buelta-bueltan.

Abuztuaren 15erako jaitxoak prestatzen hasiak dira dagoeneko auzoko gazteak eta, oraindik ziu-rra ez bada ere, lehengo urteko tankerako egun-pasa antolatze-koak dira, meza eta bazkari herrikoiarekin.

Aste honetan

hastekoak ziren antolatze-ko bilerak. Parte hartu nahi duena, beraz, garaiz dabil oraindik.

Beste kontu bati helduta, eskerrak eman beharrean nago. Aurrekoan eskean etorri nintzen txoko honetara eta eskatzea ondo dago, baita emandakoa eskertzea ere.

Batetik, faltan somatzen genuen kristala birziklatzeko ontzia jarri dutela esan beharra dut. Honez gain, papera birziklatzeko ontzia ere txukunago dago azkenaldian, ez daude paperak eta kartoiak ontzitik kanpo. Agian ez da eskatutakoa bete eta kasualitate hutsa baino ez da izan. Hala bada ere, pozgarria da.

ATXEGALDE

Amagoia Mujika



Besteak gozatuz, gureak gogoan

Urte sasoi honek bere-bereak ditu eguraldi ona eta festa usaina edo kiratsa, jai egitarauaren eguna eta orduaren arabera. Eguraldi onarena ez da beti betetzen baina, bestea, huts handirik gabe bete ohi dugu. Eta, urtero-urtero, festa garaia iristearekin bat, atxegaldetarrok malenkoniatsu jartzen gara, «gogoratzen gure festetaz?», eta beste txoko bateko festak gozatzen ditugun bitartean gureekin gogoratzen gara. Halako trantze batean, gure lehenengo gaupasarekin gogoratu ginen kuadrilako batzuk lehengo batean. Arratsaldean jo ta su aritu ginen jolasean, hamabi edo hamahiru urte izango genituen. Altxorren bila

jolasa ondo gogoan dut, hor ibiltzen ginen gora eta behera eskatzen ziguten guztia plazara biltzen, txakur bat eta guzti. Gero lokotxa jokoan ere aritu ginen, neskak mutilen aurka eta berdinketarekin amaitu genuen saioa. Auzoko aiten arabera mutilak izan ziren garaile baina ama kuadrilak ez zuen epai hori onartu eta nesken alde azaldu zen; ika-mika txikiaren ondoren, berdinketarekin amaitu zen saioa eta guztiontzat izan zen saria. Hala hobe. Eta gauean erromeria. Gogoan dut Haritza taldea aritu zela plazan. Izugarrizko «pelmada» eman eta gero goizaldeko txokolatadan gertatzen zeko baimena eman ziguten gurasoek, nahiz eta guztiok hala

guztiok ohea plazatik oso gertu genuen, ez ziren 50 metro izango baten eta bestearen artean. Txokolatada aurreko bi orduak mahai gainean lo eman genituen eta zaharxeagoek etxera joateko eta joateko esaten ziguten arren, guk ezetz. Hainbeste kostatako lizentzia aprobetxatu beharra zegoen. Eta, azkenean, iritsi zen txokolatea hartzeko garaia. Seguru inoiz ez dugula hain gustura hartu goizaldeko txokolatea. Eta hartutakoaren markak dotore aho izkintetan eta sudurrean hartuta, poz-pozik ohera. Lehengo hartatik batzuekin eginak garen arren, inoiz ez gara oheratu halako asetasunarekin.

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Piperrak ez dira garaiz heldu

Azkenaldi honetan denok Azerura begira gabiltza eguzkia noiz aterako den zain eta eguraldia dugu berriketarako iturri. A ze udara kaxkarra egiten ari duen. Horrelakorik ezagutu ahal da! Gehienok kexu gara, bai hondartzara joango litzakena, bai pasiatzen ibiltzen dena, bai haurrekin ibili behar duenak eta batez ere baserritarrak. Aurten dena oso atzeratuta dator: piperrak, patatak, tomateak, eta abar.

Gure inguruan gero eta piper gehiago landatzen dela jakina da. Biltzeko gazteak eta azken urtetan batez ere kanpoko etorkinak ibiltzen dira txanpon batzuren truke. Aurten honez-

kero aspaldian lanean jardun da behar zuten urtero bezala, baino eguraldi petral honegatik piperrak ez dira heldu garaiz eta oraindik ez dago biltzen lanik. Beraz hor daude denak zain, lanean noiz hasiko, ea hemendik aurrera eguzkiak



berotzen hasten den diru premia edukiko dute eta.

Bestalde, aurten San Esteban jaietako jubilatuen bazkaria gure auzoan burutuko da, hain zuzen Saltxipi jatetxean, eguerdiko ordubietan Abuztuaren 3an. Bertara joateko asmoa duenak, giro alaian arratsalde ederra igaro arren, uztailak 27an (larunbata) arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara apuntatu eginbeharko du Erroizpe elkartearen (soziedadean). Bazkarira joateko apuntatzeko egun bakarra hau izango da. Prezioa berriz 18 eurokoa. Animatu zaitzete, San Esteban egun konpletoa bizitzeko.

KALEBERRI

Ines Kamino



Festa politak izan dira

Amaitu dira festak. Eman beharrekoa eman zen eta badirudi jendea gustura dagoela aurten egin denarekin. Jai Batzordea ere gustura dago aurten egindakoarekin. Ekitaldi guztiak ezin tarte honetan bildu baina aurtengo maskotak aipamen berezia merezi duela uste dut. Jexux Artzeren omenez eginiko txalaparta herritarren gustukoa izan zen. Batzuentzat azken urteotako politena izan da. Jexuxi eskaini zitzaion omenaldia ere hunkigarria izan zen.

Honakoan ere Santixabeletako XXVI. Bertsopaper Lehiaketari buruz ere hitz egin nahi nuke. Aurtengo txapela Imanol Zarautz gaztearentzat izan da.

Zorionak irabazle-ari eta horrela segi.

Baina Imanol Zarautz ez zen saritu bakarria izan. Jexux Artzeri eskainitako bertsoekin bigarren geratu baitzen Antton Aranburu. Eta hirugarren saria, aldiz, Xabier Aranburu Xomorro-rentzat izan zen.

Urte osoan Santixabelen zain eta pasa dira. Jada hurrengo urtekoa noiz iritsiko zain gaude. Animo, gero eta gutxiago falta



da eta. Bien bitartean, zubietarrok eta bertara hurbiltzen zaretenok ondo pasa Santiotan. Eta ez ahaztu hementxe direla Sanesteban jaiak.

AGINAGA

Maria Anjeles Arruti



Ohitura zaharrari eutsiz

Joan den ekainaren 23an Sanjoan bezperako suarekin ospatu genuen lehengo ohitura zaharra gure auzoan. Egu-raldiak ez zuen asko lagundu, euria nagusi baitzen, baina hala eta guztiz ere sua piztea lortu genuen. Sanjoan bezpera igandea tokatu zenez, ez ginen



jende asko bildu bertan, baina ahal dugun heinean, ohitura zahar honi eutsi nahi diogu.

Denetik izaten dugu bertan; trikitixa, bertsoak,... soinua jotzen Joxe aritzen da -bertsotan ere iaioa dugu, gainera eta berarekin batera Antonio, Luis, Juanita eta Iñaki. Nire lagun-tza ere izaten dute koplak abesteko.

Eztarri buztitzeko ere izaten dugu; txanpaina, pastelak eta kafea. Eta ezin falta gure Joxek ekartzen dizkigun itxaferoak. Eta ez dira nolanahikoak gaine-



ra, herriko festa nagusietan bezalakoak, alajaina!

Bukatzeko, auzotarrei eskerrak ematea baino ez zait geratzen eta datorren urterako gonbitea luzatzea guztioi.

ZUBIETA

Olatz De Miguel



Michelingo hodian berrikuntzak hasi dira

Garai eta gizakiaren baliabideak aldatuz doazela ia ohartu gabe igarotzen zaigu askotan. Duela ez horrenbeste lurraren barneak irekitzea gizaki batenak irekitzea bezain korapilatsua izan zitekeen, eta ondorioz ez hain ugaria. Egun gauzak erabat aldatu egin dira, eta bai bata eta bai bestea eguneroko kontu bilakatu zaizkigu, erabateko normaltasunean eginak; mendiari lurra jatea edo amildegia betetzeak ez du suposatzen garai bateko esfortzu handi hori.

Hori Zubietan azkenaldian nahiko present dugu, izan ere bide zabalketak bukatutzat eman ditzazkegun honetan eta etxe berrien urbanizazioa mar-

txan dagoelarik (ah! herriarentzat hain garrantzitsua den ur zikinen saneamendua ahaztu gabe) Michelingo hodian berrikuntzarekin hasi zaizkigu, horrek dakarren lur mugimendu guztia-ekin.

Hodi hauek bere garaian aurrerakuntza handia suposatu zuten, zeren nahiz eta Zubietan ur falta ez den arazo izan (base-ri bakoitzak bere inguruko mendi urak hartzen baitzituen) hodi hauen bitartez gauza asko erraztu zen. Era honetan, base-ritarrek hodi hauek beren lurretatik igaro zitezen utzi zuten, bai diru truke edo baita ura hartzeko eskubidearen truke. Urteak igaro dira eta hain beharrezkoa

zen berrikuntza horrekin hasi zaizkigu azkenean.

Artzabaleta inguruan bidea itxita izan dugun arren, eta kamioiak aurrera eta atzera ibiltzeak dakarren enbarazua nabaria izan arren, guztia laister amaitu eta herriaren onerako izango delakoan gaude.



Siadecok egingo du Usurbilgo azterketa soziolinguistikoa

Duela hilabete batzuk Noaia!n aurreratu genuen bezala, udalak azterketa soziolinguistikoa berri bat egingo du. 1984an egin zen azkena eta datu berriak bilatu eta ordutik hona eman den bilakaera nolakoa izan den jakin nahi da. Proposamen ezberdinak jaso ditu udalak baina Siadecorena izan da aukeratutakoa. Gogoan izan 1984ko azterketa ere elkarre berdinak egin zuela. Azterketa hau sei hilabetetan egingo da eta Udalak 25.240 euro bideratuko ditu espreski azterketa hau osatu ahal izateko.



Usurbilgo azterketa soziolinguistikoa egiteko Siadecok sei hilabeteko epea izango du.

1984an bezalaxe, Siadeco izango da Usurbilgo azterketa soziolinguistikoa egingo duena. Sozio-ekonomi ikerketa elkarre honek hiru betebeharrak nagusi izango ditu:

1. Gure herrian euskarak eta euskararen normalizazio-prozesuak bizi duen egoeraren inguruko hausnarketa prozesua abiarazi eta diagnostiko sakon bat osatu. Bide batez, 1984an Siadecok egin zuen azterketa-rekin alderatu beharko du oraingo ikerketak. Helburu honen baitan, beste zeregin hauek ere bete beharko dira: herri eragileak lokalizatu, herri mailako proiektuak aztertu edota paisaia linguistikoaren errolda egin.

2. Euskararen sustapenerako

plangintza estrategikoa definitzea. Lehenetasunak finkatuz eta udaleko nahiz herriko eragile desberdinen jarduerarako proposamen zehatzak proposatuz.

3. Aurreko betebeharrak gauzatzeko, Siadeco elkarre Udalaren jardunbiderako plangintza egin eta 2002-2006 gestio-plana zehaztu beharko du.

Jada martxan den azterketa soziolinguistikoarekin eragile guztiak dinamizatu nahi ditu Siadecok, hala dio behintzat udaletxean aurkeztu eta onartua izan den proposamenak. Era honetan, udal ordezkariak, elkarreteko kideak, herritarrak inplikatu nahi dira.

Arestian aipa bezala, azterketa soziolinguistikoa egiteko

hainbat proposamen jaso ditu Udalak. Azkenean, Siadecori esleitu zaio proiektua. Eta orain lanean jartzeko ordua iritsi denean, abantaila badute. Izan ere, eurak izan ziren duela 18 urteko azterketa soziolinguistikoa egin zutenak.


SEI elkarreak duela gutxi egin-dako kale neurketen emaitzak ere baliogarri izango zaizkie.

Siadecok sei hilabeteko epea izango du azterketa soziolinguistikoa egiteko. Guztira, 25.240 euro jasoko ditu eta azken emaitza funtsezkoa izango da batez ere etorkizunari begira. Orain arteko bilakaeraren berri emango zaigu eta, bide batez, datozen urteetarako lan ildoak zehaztuko dira.

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



Kreditu aldaketa berri bat onartu da udalbatzan

Udalak dagoeneko onartu du 2002ko 2. kreditu aldaketa. Aurtengo aurrekontuetan aurreikusten ez ziren 17 gastu moten partiden kreditua gehitu da.

Honekin batera ere, gastu honi aurre egiteko 10 sarreraren partidak ere gehitu dira, honako hauen sarrerak: ondasun higiezinaren zerga hiritarra, ibilgailuen gaineko zerga, isunak, apremio erreargua, EHAetik transferentzia turismo garapenerako, zoru publikoaren aprobetxamendua, lurren salmenta Zubietan, landabideen erabilpen prezioa eta, azkenik, EHAetik transferentzia Agenda 21.

Guztira gastuak eta sarrerak 196.379,84 euro igoko dira. Kreditu aldaketa hau jendarean jarriko da.

GASTU PARTIDAK GEHITZEA	EUROAK
- Udalaren auditori lanak	6.000,00
- Buztinzuloko labea	1.803,43
- Fototekaren digitalizazioa	6.011,42
- Udarregiren liburu erosketa	682,00
- Usurbigo historiaren azterketa	18.034,27
- Harane zelaiko proiektua	12.022,00
- Egunekeo zentrua ekipatzea	7.425,18
- Alperroburu rotonda proie.	12.000,00
- Kalezargo jolas parkea	6.000,00
- Ugarte industr. seinalizazioa	610,00
- Hilerri berrirako tresneria	24.000,00
- Aginagako elektrizitate lanak	85.357,00
- Material horniketa arrunta	360,69
- Euskal. alfabetatze zerbitzua	11.560,02
- Egunkaria irakurtzeko kanp.	1.052,00
- Xiberua planari transferentzia	2.500,00
- Taldeei transferentziak	961,83
GUZTIRA GASTU GEHITZEA	196.379,84

600 euroko laguntza Bertsularien Lagunak Elkartearentzat

Udalak aurtan ere Iparraldeko Bertsularien Lagunak Elkartearentzat 600 euroko dirulaguntza bideratu du. UEMAko eta Hegoaldeko beste udal-txetetatik ere jasotzen dituzte laguntzak; guztira, 9.018,15 euro.

Elkarte honetako kideek igorritako eskaeran dirulaguntzaren zergatiak azaltzen dituzte. Aurtengo ikasturterako bi egitasmo garrantzitsu dituzte eskuartean; batetik, irakaskuntza arautuan bertso-kultura eta ezagutza

hedatzea eta, bestetik, Iparraldeko bertsolari konsagratuen eta helduen bertso-eskolen arteko saio ligaxka antolatzea, zaletasuna adin-tarte zaharra-goetara hedatzeko asmoz.

Elkarte honek iparraldean oraingoiz lor ditzaketen laguntzak murriztzak dira, horregatik eginahalak egiten ari dira diru-iturri berriak bilatzeko. Batzuk lortu dituzte iadanik; bazkide gehiago, lantegiak eta mugaz bi aldetako udaletxeak.

► Udajolas kanpainak Udalaren dirulaguntza jaso du

Herriko haurrei zuzendua dago Udajolas kanpaina. Udalak Kultura Batzordearen proposamenarekin bat egin du eta 600 euroko dirulaguntza eman dio.

► Aldi batez liburuzaina ordezkatzeko oinarriak onartu dira

Ordezkapenerako azken lan poltsan dagoen jendea lanean denez, Udalak liburuzain laguntzailearen postua betetzeko oinarriak onartu ditu, egun lanean den liburuzainak, Bakartxo Iguaranek, 16 hilabeteko eszedentzia eskatu baitu. Oinarriak azkenaldian beste lanpostu batzuk betetzeko zehaztu diren antzekoak dira.

► Honek GKEari 3.000 euroko dirulaguntza emango zaio

Osasun eta Ongizate Batzordeak proposatuta, Honek Gobernu Kanpoko Erakundeak 3.005,06 euroko dirulaguntza jasoko du.

Orain dela gutxi Usurbilen haur eta helduei zuzenduriko antzerkia eskaini zuten. Baina ekitaldi hau sentsibilizazio kanpaina baten zati bat baino da. Osasun eta Ongizate Batzordeak ahobatez onarturiko proposamenarekin bat egin zuen uztailaren 4an bildu zen Gobernu Batzordeak.



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

LATAILLADE

**ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK**

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

Aste luzea izan da atzean utzi duguna

Uztailaren 1ean buru belarri murgildu ginen jai giroan, uztailaren 7a arte eta oraindik ere batzuen ajeak hor dirau. Aurtengo protagonista nagusia, maskota izan da: Jexux Artzeren ome- nez eginiko txalaparta. Herritar ugari inguratu zen maskotaren igoera ikustera, baita gauerdien udaletxe aurrera danbor hotsak entzutera ere. Pako Alkortak dotore asko eman zien hasiera Santixabelei, eta bertaratu ziren guztiek ere gogotsu eta adi entzun zituzten Pakoren hitzak.

Aste luzea izan da atzean utzi duguna. Herritarrok ez dugu aspertzeko aukerarik izan, era guztietako ekitaldiak izan baitira zazpi egunetan zehar: soka-dantza, danborrada, antzerkia, bertsolariak, erakusketak... Heldu eta gazte, ume eta guraso, guztiek izan dute tarte bat Santixabel jaie- tan. Ilunabarretik goizalderako tarteak ere musika mota guz- tiekin bete dira; trikitixa, txaran- ga, platano-dantza, rock-a, DJak eta xexenak.

Igaro dira festak, eta balora- zio egunetan murgildu gara jai batzordeko kideok. Balo- razio bileran ere, orain arteko jai batzorde guztietan egon den parte hartze berdintsua egon zen. Eta balorazioa ahobatekoa, hitz batean esatekoa: positiboa.

Bileran ia talde guztietako ordezkariak bildu ginen: umeen eguneko ordezkaria, txosnetako ordezkaria, herri kirolak antola- tzeaz arduratzen den Andazpe elkarteko kidea, Aitzaga Kultur elkarteko laguna, danborrada, herritarrak... eta guztiok irrifarra ezin ezkutaturik geunden mahaiaren bueltan. Zergatik ote? Ez dugu lotsarik esateko: gustora gaude. Ez gara harrotu- ko, baina hitzetik hortzera ibili den komentarioak pozten gaitu: "2002ko jaiak azken urte haue- tako jairik onenak izan dira".

Eta zein da arrazoia? Zaila erantzuna. Edo, ba ote dago? Ez du axola, izan ere, festak par- tehartzaileak eta herrikoiak izan direlako. Akatsen bat edo beste izan da, esateko, egitarauan zanpatzarrak egongo zirela jar- tzen zuen arren, azken orduko

arazoak tarteko, ez ziren etorri.

Jexux Artzeri azken egunean eskaini zitzaion omenaldiako musika ekipoa ez zen hain ona. Buruhandietan ere izan dira arazo batzuk, trafikoa ez zelako behar bezala moztu. Bestelako- ak ere izan dira, txikikeriak agian, baina datorren urterako kontutan izatekoak.

Bestela, ekitaldi guztietan jen- dea ibili da; herri kirolean, dan- borradan, txosnetako ekitaldi guztietan, bertsolarietan, musika emanaldietan, xexenetan,... zerrenda luzea osatuko genuke. Baina, agian, guztietan aipaga- rriena Oilasko Biltzaileen Eguna dugu. Azken urte hauetako joera ikusirik, bazirudien galtzen ari zen ohitura genuela egun hau, izan ere, urtetik urtera herri- tar gutxiago irteten baitzen oilaskoak biltzera. Aurten, ordea, herritar ugari izan da, eta, giroa, primerakoa!

Bukatzeko, eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen. Ea datorren urtean aurtengoa erre- pikatu edo hobetzen dugun.

Jai Batzordea

Santixabelak iruditan



Pako Alkortak piztu zuen jaien hasierako txupinazoa. Urduri hasi baino lehen, ekitaldi amaieran pozik zegoen egindakoarekin.



Andatza Kultur Kirol Elkarteko lagunak mendian gora bezain fin aritu ziren dantzan Santixabel Egunean.

Santixabelak iruditan



Txosnetan ekitaldi ugari izan da aurten ere. Erramun Martikorena-ren kantaldia izan zen horietako bat.



Umeen eguna oso polita izan zen.



Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere oillasko biltzaileek ez zuten hutsik egin. Aurten, gainera, herritar ugari animatu zen.



Festa giroan egon arren, izan zen tarterik herriko preso eta erre-fuxiatuak gogoan izateko.



Kuraia eta Banda Bassotti taldeek jende ugari bildu zuten uztailearen 6an.



Aurtengo Santixabelen amaieran, maskota erretzearekin batera, ondo merezitako omenaldia egin zitzaion Jexux Artzeri.

Bizikleta hartu eta Bolivia eta Brasil ezagutzera joan dira hiru lagun

Han dira jada. Bizikleta hartu eta beste herrialde bat, beste kultura bat ezagutu asmoz abiatu ziren uztaillaren 10ean Boliviako La Paz hirira. Bidaia antolatuetatik hurrin, abenturatik gehiago du gazte hauen egitasmoak. Lau lagun abitu dira Bolivia eta Brasil aldera: Haritz Zubiaur, Enrike Huizi eta Koldo Huegun usurbildarrak eta Lezoko lagun bat, Aitor Unanue. Joan baino lehen, Haritz Zubiaur eta Enrike Huizirekin biltzeko aukera izan genuen. Mendia egiteko asmoa ere ez dutela baztertu adierazi ziguten.

Uztaillaren 10ean abiatu ziren hiru lagun hauek. Abuztuaren 15a bitartean Bolivia eta Brasilgo lurretan ibiliko dira. Hasiera batean behintzat, bizikleta izango da euren ibilgailua. Baina bestelako garraiobiderik ez dute baztertzen. Izan ere, irten aurretik dena lotu baino, hara iritsi eta bertan antolatu nahi dute zeharkaldia.

Haritz Zubiaurrek hala azaldu zigun: "Santa Cruzera eramango gaitu hegazkinak baina La Paz-era joan nahi dugu. Bertan egun batzuk pasa, altuerara egokitu, tokiak ezagutu, eskapadak egin... mendiren bat egitea ez dugu baztertzen. Tikitaka laku famatua ere bisitatu nahi dugu". Baina dena egoe- eta bertako baldintzen baitan dago.

Hasteko, hara iritsi eta altuerara egokitu beharko dira. La Paz, esate baterako, 3.500 metroko altueran baita. Eguraldiak ere zerikusi handia izango du, eta horren arabera zehaztuko dituzte egunez egun eman beharreko urratsak.

Bolivia izango da bidaiari- lehen etapa. Bigarren etapa



Enrike Huizi eta Haritz Zubiaur ilusioz abiatu ziren Bolivia aldera.

batean, Brasilgo Rio Brancora joateko asmoa dute-eta. Enrike Huizik azaldu digunez, Rio Branco Boliviarekin mugan dago eta hara bizikletan iritsi nahi dute: "Rio Branco oihan bat da. Indigenei laguntzeko programa bat martxan da eta euskaldun bat han bizi da. Horietako bat ezagutzen du Koldo Huegunek. Eta han egun batzuk egin nahi ditugu baina hori ere airean dago oraindik", adierazi digu Enrike Huizik.

Hasiera batean, Rio Brancora joatea zen asmoa. Baina Bolivia ezagutzea ere interesgarria iruditu zitzaion. Haritz Zubiaurrek eman digu aukera honen xedea: "Bolivia erakargarria egiten zaigu, Peru bezalaxe. Herrialde lasaia da, ez dago Brasilen dagoen korrupzioa edo delinkuentzia. Hego Amerikako Tibeta dela diote".

Arestian aipatu bezala, ez da ohiko bidaia lagun hauek osatuko dutena. Hasteko, bizikleta izango da oinarria. Zeharkaldia ez dute aldeztu aurretik goitik

behera zehaztu. Enrike Huizik azaldu digunez, "La Paz- en egun batzuk pasa, han kokatu, jendeari galdetu eta han zehaztuko ditugu gauzak".

Etapaz etapa ibilbidea bertan zehaztuko dute. Izan ere, bertan badituzte harremanetarako kontaktuak. Boliviako lagun batekin harremanetan izan dira: hemendik hara joandako Jose Mari Makazagarekin. Honen iloba Maiderren bitartez jarri dira Jose Mariarekin harremanetan. Berari esker lortu dute lehen gaua pasatzeko toki.

Kirolari lotuta dauden gazteak diren arren, ez pentsa bizikletan entrenatzen asko ibili direnik. Hala ere, ez dira Tourra korritzera joan, paseatuz beste herrialde bat ezagutzera baizik.

Bueltarako emanaldi bat egiteko adina diapositiba ateratzeko asmoa dute. Ea hango bizipenak eta irudiak ikusteko aukera eskaintzen dizkiguten hiru abenturazale hauek.

Bisitan datozkigu Catalunya-ko gazte batzuk

Udan gaude eta jende asko oporretan denez, bisitarien presentzia areagotu egin da azken egun hauetan. Horien artean dira Catalunya-ko aisialdi bateko lagunak. Bi egunez izango dira gure artean. Udalak Udarregi Zaharra erabiltzeko baimena eman die.

L'Hospitalet hiriko langile auzo batekoak dira Joves taldeko kideak. Aisialdi talde honek uda honetan Euskal Herria ezagutzeko du helburu eta uztailaren 21ean eta 22an Usurbilen izango dira. Apirilaren amaieran Usurbileraino etorri zen Joves taldeko ordezkari bat. Baliabide gutxiko taldea dela eta laguntza eske jo zuten udal ordezkariengana.

Batez ere, 21eko gaua igarotzeko leku bila zebiltzan. Udalak eskaera aztertu eta Udarregi Zaharra erabiltzeko baimena eman dio Catalunya-ko talde honi.

Beste kultura eta beste errealitate bat ezagutu nahian

Aisialdi talde hau El Esplai Pubilla Cases-Can Vidalet elkarreko kide da eta 1979an eratu zen. Udal ordezkariak jakinarazi dietenez, ilusio handiarekin prestatu dute bisita hau. Beste kultura eta beste errealitate batzuk ezagutzeko joera dutela eta aurten Euskal Herria bisitatzeko gogo dute.

Santixabeletako egitaraua egin zutenen oharra

Santixabeletako egitarauaren diseinua lehiaketa bidez zehaztu zen. Lau lagunek eginiko lana onartu zuen epaimahaiak eta 300 euroko saria Mikel Bengoetxea, Axier Otegi, Aitor Egileta eta Aitziber Elortzarentzat izan zen. Egileek, ordea, Noaua! aldizkariaren bitartez gauzatxo bat argitu nahi dute. Honela dio igorri duguten oharrak:

"Aurreko alean Noaua!n azaldu zen bezala, herriak badaki nortzuk izan ginen festetako programaren maketazio lehiaketan irabazle suertatu ginenak.

Hala ere, guk azpimarratu nahi genuke, bertan erabilitako argazkiak gehien bat Joxean Labaienak zirela, eta programan egileen izenak ateratzea ahaztu genuen bezala, bere izena aipatzea ere ahaztu genuela.

Mila esker ta gora Santixabe!!! Gutxiago falta zaigu eta hurrengo urtekoetarako.

Mikel, Aitziber, Axier eta Aitor".

Zuberoaren aldeko kanpaina afari batekin amaituko da

Zuberotarrekin bat auzolanean egin den kanpaina amaitzeaz da. Uztailaren 20an Aitzagan egingo den afari batekin bukaera emango zaio azken hilabeteotako herri ekimenari. 12 eurotan afari ederra prestatuko dute. Txartelak jada salgai dira Txiriboga, Aitzaga eta Benta tabernetan.

Menua hauxe izango da: entsalada, piperminen errebuelttoa, marmitakoa, helatua txo-

kolatearekin, kafea, kopa eta purua. 21:00etan hasiko da afaria eta gogoratu eguna, uztailaren 20an Aitzaga elkartean.

Soilik 1.000 euro falta dira Usurbili dagokion kopurua berdintzeko. Jakingo duzuen moduan, kontu korronte bat irekita dago oraindik Euskadiko Kutxan. Ekarpentik egin nahi duenak hementxe du aipaturiko kontu korrontearen zenbakia: 140 00 1870 7.



MAHUKA

BEHERADENAK

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



txirriStra

TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Telf: 936 36 04 66



Manolo Sanchez, upeletan maisu den asturiarra, Saizarren izan da lau astez

7 5 urte ditu Manolo Sanchezek eta bizitza osoa egurrezko upelgintzari eskaini dio. Pentsa, 13 urterekin konpondu zuen lehen upela. Saizar Sagardotegia berritzen ari direla aprobetxatuz, asturiarra gonbidatu dute upelak puntu egokian jartzeko. Jubilatuta dago baina oraindik bere jakintza aparta da. Horregatik izan da Saizarren.

Nondik iritsi zitzaizun lanbide honetarako joera?

Aitonak upelak egiten zituen baina gazte hil zen. Nik ez nuen ezagutu; hala ere, aitorenaren tresneria eta tailerra erakargarria egiten zitzaizkidan.

Ikasle eta irakasle izan naiz era berean. Askok kopiau ninduten baina nik ez nuen sekula hori egin. Nik zegoena aztertu eta hura hobetzen saiatzen nintzen, ez berdintzeko; hobetzeko asmoz baizik. Lanbidean iraultzailea izan nintzen. Garai hartan upel egile asko zeuden. Orain ez da inor geratzen.

Upel handiagoak egiten hasi nintzen eta kritika asko jaso nituen. Nire lehen upelak garantizatu behar izan nituen! Eta sei hilabetera kobratu behar izan nuen! Ez ziren nitaz fidatzen.

Jubilatuta egon arren, jendeak oraindik zuregana jotzeko ohitura du, ezta?

Bai, baina ezin ditut eskaera guztiak atenditu. Estebanen

lagun mina naiz aspaldi, 1965ean ezagutu nuen. Familiakoa da niretzat, horregatik etorri naiz Saizarra, bestela ez nintzateke Asturiasetik mugituko. Hiru gazte etorri dira nirekin eta beraiek dira lan egiten dutenak. Ni jubilatuta nago baina aholkatu egiten diet.

Kontatu iezaguzu zertan oinarritu den zuen lana.

Helburua egurrezko upel batzuk moldatzea izan da, sagardoa hozteko sistema bat ezartzea. Sagardoa bere tenperatura egokienean mantentzea da xedea: udako beroak ez dezala sagardoa garraztu. Bide batez, upelak ere errestauratu ditugu.

Zein izan da lan-prozedura?

Upelek zulo batzuk izan behar dituzte hainbat hodi sartu ahal izateko. Gainera, irradiagailu moduko bat ipini diegu tenperatura egokia mantendu ahal izateko.

"Sagardo ona ematen duen upela ondo zaindu behar da"

Sistema hau ez da berria, ezta?

Ez, aspaldi existitzen da. Leku askotan ezarrita dago. Metalezko upelak jada sistema honekin eginda etortzen dira.

Errestaurazio lana ere egin duzue. Zein da erabili duzuen egurra.

Gaztainondoa bereziki. Nire



Aspaldiko lagun minak dira Manolo eta Esteban.

bizitzan soilik behin erabili dut haritza eta ez zen esperientzia ona izan. Haritza ardoa eta whiskyarentzat egokia da, baina sagardoarentzat gaztaina da ondoen moldatzen dena. Dena den, soilik kaltetuta dagoen zatia konpontzen dugu. Urte asko dituzten upelak dira, asko balio dute eta ondo zaindu behar dira. Sagardo ona ematen duen upela ondo mantendu beharra dago.

Munduko sagardo onena egurrezko upelekoa da. Baina metalezkoa baino lehen izorra daiteke sagardoa. Ekoizle orok gutxienez bere produkzioaren %30a egurrezkoan egin behar luke.

JUANTXO
burdindegia
kale nagusia 10 Usurbil
37 00 08

gorriti
EDARITEGIA
kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

Xinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behea,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

Hiru egitasmo garrantzitsu estreinatuko ditu Noaua! Kultur Elkarteak irailean

Oporretatik bueltan Noaua! Kultur Elkarteak hiru egitasmo berri

jarriko ditu martxan:

www.noaua.com webgunea, aldizkariaren edizio elektronikoa eta Noaua! hamaboskariaren diseinu berria. Hona hemen aurrerapen txiki bat.

Noaua! hamaboskaria jada sustraiturik dagoen aldizkaria da. Herri informazioan gurea da erreferentzia nagusia herri-tarren begietan. Martxan jarri zela urte batzuk badira eta dagoeneko bere lekua egin du herrian. Denbora, ordea, aurrera doa eta aldizkaria ere garai berrietara egokitu behar da. Horregatik, **Internet eta Noaua! hamaboskariaren diseinu berria** dira epe laburre-ra zehaztu ditugun lehentasunak.

Aldizkariaren diseinu berria eta edizio elektronikoa

Esan bezala, beraz, irailean Noaua! hamaboskariak itxura berria izango du. Ildo nagusiak eta aldizkariaren funtsa berbera izaten jarraituko du, baina, orain, jantzi berri batekin apaindu behar dugu hamaboskaria. Estetikoki eguneratze premia duela Noaua! aldizkariak. Lan honetaz **Olatz Goenaga** herritarra arduratu da. Baina, diseinua aldatzearekin



Olatz Goenagak egin du aldizkari berriaren diseinua.

batera, aldizkaria bera ere gaurkotu dugu; zehazki, sail edo atalak berriak ditugu.

Badakigu ez dugula iparra galdu behar: herri informazioa lantzen jarraituko dugu. Elkarriketak, erreportaiak, Pil-pilean, Kontzeju txikia,... eta antzeko atalak aurrera begira ere mantenduko ditugun atalak dira. Horretaz ez dugu zalantzarik. Badira, gainera, beste atal batzuk irakurleak oso asimilatuak dituenak; ika-mika, Txerrimunik ordainetan, Majerako kondarrak, Agenda... hauek guztiak ere jasoko ditu aldizkari berriak. Hauekin guztiarekin batera, Noaua! berriak bestelako atalak jasoko ditu: guztietan aipagarriena **Noaua!**

txiki dugu. Usurbilgo haurren txokoa dugu atal hau: informazioaz baino aisia gehiago duen atala.

Euskarri elektronikoa

Diseinu berria ez da izango aldizkariak izango duen aldaketa bakarra. Izan ere, irailetik aurrera Noaua! aldizkaria euskarri elektronikoan ikusi eta irakurri ahal izango duzue. Aldizkaria gure webgunean kontsultatu ahal izango duzue. Izan ere, aldizkaria sarean edukitzearekin batera, beharrezkotzat joa baikenuen orain arte izan dugun webgunea berritzea eta eguneratzea. Gure komunikazio proiektua osatu eta indartzea baita gure

Noaua!ren webgunea: www.noaua.com

Teknologia berriek baliabide eta aukera ugari eskaintzen dute, goitik beherako informazioaz hara-tago, komunikazio forma horizontalagoak sortzeko; eta hor, herritarra informazioaren hartzaile izateaz gain, informazio igorle eta iritzi sortzaile

ere izan daiteke, orain arte eta ohiko komunikabideetan baino modu errazagoan. Hori dela eta, **www.noaua.com** webgunea sortu dugu.

Noaua! hamaboskariarekin batera, gure webgunea herri-tarren komunikaziorako tres-

na dinamikoa izango den gune interaktiboa eta aktuala sortu nahi dugu.

Beraz, gune dinamikoa, horizontala, erabiltzeko erraza eta partehartzailea topatuko duzu. Hau ere, irailetik aurrera.

Aitor Alkorta: "Hiru Haundiak egiteko gogor entrenatu beharra dago"

Mendizaleen artean badira sona handia duten hainbat ibilbide. Horien artean da bi urtez behin egiten den Hiru Haundiak Mendi Ibilbidea. Aizkorri, Anboto eta Gorbeia lotzen ditu zeharkaldi honek eta aurten-goia 13. edizioa izan da. Manuel Iradier taldeak antolatatu du 100 kilometroko luzera duen ibilbidea. 764 lagun irten ziren baina soilik 432 iritsi ziren helmugara. Horien artean, Joan Mari Torrealдай eta Aitor Alkorta. Azken honek kontatu dizkigu Hiru Handietan bizitako pasarteak.

Hiru Handietan parte hartzeko grina noiz piztu zitzaizun?

Aurretik ezaguna egiten zitzaidan ibilaldi hau. Niri eroaldia aurten eman dit eta aurten atera naiz lehen aldiz. Beste lagun batzuk animatu nahian ibili nintzen baina azkenean bakarrik egin dut. Han bertan beste martxa batzuetan egingako lagunekin topo egin nuen baina bakarrik egitea ez diot inori gomendatzen. Anbototik Otxandiora ibili nintzen 5 orduz bakarrik eta lo hartzen nuen bidean. Oinez nihoala bakarrik nihoan oinetara begira eta begiak ixten zitzaizkidan. Atzetik tipo bat zetorren eta "hi, kontatuiak zeozer lo hartuko diat bestela!" bota nion. Bakarrik egiteko gogorra da.

20 ordutan osatu zenuen 100 km-ko zeharkaldia. Hori egiteko garrantzitsua izango da indarrak etengabe berri-zea, ezta?

Ibiltzen hasi eta segituan jan eta edaten hasi nintzen. Nahiz eta goserik edo egarri-rik ez eduki. Irten eta berehala jaten hasi beharra dago, bestela etsi-etsian bukatzeko arriskua duzu.

764 lagun abiatu baina helmugara soilik 432 iritsi zineten. Froga gogorra den seinale.

Hiru Handiak egiteko ondo entrenatu beharra dago. Valladolideko batzuk topatu nituen aldageletan eta leher eginda zeuden. Ez zuten amaitzerik izan.

Azken kilometroak gogor- rak egin al zitzaizkizun?

Hasieran lasai hasi nintzen. Beldurrez, bukatuko ote nuen ala ez. Lehen etapa egin ondoren ordu erdiz gelditu nintzen. Bigarren etapa amaieran ordu f'erdiz eta azken etapa oso ondo osatu nuen. Azken 30 kilometroetan Zarautzeko lagun batzuekin ibili nintzen. Erdi korrika egin genituen, barbarik gabe eta oso-osorik amaitu nuen. Alde horretatik oso gustura nago.

Datorren edizioan atera nahi duenari zer esango zenioke?

Atera nahi duenari ondo prestatzeko esango nioke, bes-



Aitorrek 13 ordu behar izan zituen froga egiteko.

tela sufritzeko arriskua duela. Konfidantza handiarekin atera behar da. Bestela, material aldetik ez da ezer apartekorik behar.

Denbora asko egin al duzu Hiru Handiak prestatzen?

Azken hiru hilabeteetako martxatan atera naiz. Bi Handiak, Beasain-Aizkorriko martxa eta Tolosaldeko Txirrita Ibilbidea egin nituen Hiru Handiak baino lehen. Pagoeta-Ernioko buelta ere egin nuen nire kontura. Korrika ere ibili naiz azken boladan, eta puro txikiak kontrolatu...

TXURRUT

TABERNA

Giro eta musika atsegina!



San Esteban kalca, 1
Tel: 943 36 00 80

Iturgintza - Gasa - Berokuntza
J. Orbegoza



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

Mikel Alzola gernikarrak irabazi zuen Euskadiko Gizon Proba Txapelketa

Espero zen bezala, arrakasta handia izan zuen Euskadiko Gizon Proba Txapelketak. 1987tik ez zen gizon probarik egin dema plazan. Santixabeletan, ordea, Euskadiko Txapelketaren lekuko izan ginen. Aipatzekoa da Andatzpe Elkarteak eta Aitzaga Kultur Elkarteak egindako lana. Ikuskizuna bikoitza izan zen, bi egunetan ospatu baitzen. Azkenean txapela Gernikara joan zen, Mikel Alzolaren etxera, hain zuzen.

750eko harria menderatzea ez da lan erraza. 10 lagun lehiatu ziren eta garailea Mikel Alzola izan bazen ere, ikusteakoa izan zen batzuek eta besteek egindako ahaleginak.

750 kiloko harria mendera-

tzea ez da lan erraza. Baina hala ere, txapeldunak 3 plaza eta 7 zinta osatu zituen. Aise nagusitu zen. Mikel Alzolak bigarren sailkatuari, Balmasedako Miguel Silvosari plaza bateko alde atera baitzion.

85 kilo azpikoen artean Juan Carlos Ibarluzea izan zen garailea, 2 plaza, 3 zinta, metro 1 eta 39 zm-ko bidea osatuz. Sailkapen orokorrean, aldiz, hirugarren amaitu zuen Ibarluzea tiralariak.

Jende asko izan zen dema-plazan. Giro polita sortu eta antolatzaileak eta Herri Kirolen Federazioa gustura daude Santixabeletan ikus ahal izan genuen txapelketarekin.



Mikel Alzolak hiru plaza eta 7 zinta osatu zituen 15 minutuko bi saiotan.

Huizi-Mintegi eta Errazkin-Irureta bikoteak nagusitu ziren XXX. Pilota Txapelketan

Andatzpe eta Peña Pagolak antolatu ohi duten Pilota Txapelketaren finalak Santixabel Egunean jokatu ziren. Helduen norgehiagoka parekatua egon zen eta ikusleek gustura jarraitu zuten finala.

Jende asko bildu zen gazte zein helduen finaletan. Santixabel eguna zen eta horrek ere lagundu zuen. Helduen artean, Huizi-Mintegi bikotea nagusitu zen. Fin ibili ziren eta

22-15eko emaitzarekin aurre hartu zieten Eizagirre eta Astigarragari. Mintegi hautatu zuten finaleko pilotari onena. Gazteen artean Errazkin-Irureta bikotea izan zen nagusi. Eta Errazkinentzat izan zen gazte mailako finaleko jokalaria onena.

Antolatzaileek, Aginaga, Araeta, Iruin, Aialde Berri eta Saizar sagardortegien babes eskertu nahi dute. Baita Usurbilgo Udalaren laguntza ere.



Jendeak gustura jarraitu zituen XXX. Pilota Txapelketako finalak.

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95
Mobila: 609068111



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Kale Nagusia 19
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 11

LABE-GOXO


Er diyo?

Oporretan egiten ditugun bidai luzeen aurrean



Pello Zubeldia Maiz

□ Udaltzain burua



Udaldia da bidai luzeenak egiteko aukeratzen dugun garaia. Gehientsuenak oporrak uztailean edota abuztuan hartzen baititugu. Deskantsatu eta bidaiatzeko egunak dira. Garai hauetan ere ohikoak izaten dira auto istripuak. Irtetea bezain garrantzitsua da itzultzea. Horregatik, behin eta berriz aipatu ditugun aholkuak gogora ekartzeko unea da.

Urtez urte, "Irteera Operazioa" hurbiltzen den unean entzun eta irakurtzen ditugun gomendioak jarraituko bagenitu bestelakoak lirarteke istripu estatistikak.

- Kotxea aurretik prest eduki. (Olio aldaketak, gurpilak, ispilak, argiak eta bestelakoak ongi egon daitezen).

- Egin behar dugun ibilbidea aurrez argi eduki. Bideak mapatxo batean markatuta izatea ez da gaizki etortzen.

- Gauzez edo egunez bidaiatzea berdina ez dela kontuan izan. Normalean gauzez ez gaude ohi-tuta eta gauzak oso garbi eduki behar ditugu.

- Bidaia egin aurretik ondo deskantsatu. Gure zentzumen guztiak askoz hobeto egongo dira.

- Umeak ditugunok, segurtasun neurriak ez ahaztu. Bidaian geldialdiak nahiko maiztasunarekin egin.

- Presaka ez joan. Ordurik ez jarri

ailegatzeko. Atsedenaldiari denbora gehiago eskaintzen badugu, askoz hobea. Komeni da gutxienez hiru edo lau ordutik behin gelditzea.

- Abiadura errepideari eta eguraldiari egokitu. (Ez da berdina autopista edo autobiatik joan edo kostako errepide nazionaletik joatea). Euria, terrala, elurra edo antzekorik badugu, mantxo joan.

- Distantziak gorde.

- Ahal izanez gero, urtean irteteko izaten diren egun bereziak edo seinatuak ez erabli, askoz lasaigo ibiliko gara.

- Telefono mobilak edo eskukoak itzali, edo erabiltzekotan, ondokoak eduki dezala. Ez da gomendagarria "manos libres" delakoa erabiltzea.

- Itzuleran gomendio berdinak erabili. Gogoratu presak ondorio txarrak ekartzen dizkigula eta hobea dela ordu batzuk berandua- go iristea, baina ondo iristea.

Bidaia ona izan eta ondo pasa oporretan. Baina ez ahaztu errepideetako segurtasuna guztion ardura dela.



Kima
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behe
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

ESTETIKA ZENTROA

LOURDES LARRAÑAGA

- Depilazioak
- Aurpegiko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

Irazu kalea, 12-behea
Telf: 943 36 28 87

Lehiaketa



**Zein urtetan ospatu zen
Kilometroak festa Zubietan?
Eta zein egunetan?**

Saria:

**Paddy Rekaldek idatziriko
“Whiskey koloreko gauak” liburua**

139. aleko erantzuna



Irabazlea

Ez du inork asmatu.

Saria

**Pako Aristik idatzitako
“Venezuela, iraultza isi-
laren hitzak” liburua.**

LETRA ZOPA

Iturria: LUMA aldizkaria

G A I Z K O R R I S I B O R R E D L U
B O A N B O T O E L H U S U A Z T E R
A R R O L L A B A Z I A B I T U X I K
R U B B I O A K T R I A K P N D I O U
G N U A E M U R U O S O L E K I E I L
A A K A N I D H A I D Z O U B B A B U
G R L D T O A U J N L H A K I A S R A
A O U P R U H A I T Z A N D I E G E R
S K G I H I R X Z I Z T A H O L K N I
K A A L E X T R A K U S T H A R G L O
A L R B I B U N I S O H O E Z K R A S
O N A N M A M L U A N I R R O G I A B
K I N J A Z A E P R I A L R A O L I L
A Z A D O R R A S A R I T E L R A U N
B I O K R A L S O O M A K R A H T G X
E R T A H L R A I P A R L A O I K O E

NAFARROA

BEHERA:

- Okabe

- Iparla

- Urkulu

- Baigorri

- Biduze

LAPURDI:

- Larrun

- Aturri

- Bidasoa

- Errobi

- Ugarana

**Aurki itzazu letra zopa
honetan jarraian azaltzen
diren Euskal Herriko ibai
eta mendien izenak.**

GIPUZKOA:

- Aizkorri
- Txindoki

- Urumea
- Deba
- Oria

BIZKAIA:

- Anboto
- Ibaizabal

- Gorbeia
- Nerbioi
- Oiz

NAFARROA:

- Arlas
- Kartxela

- Ega
- Saioa
- Arga

ZUBEROA:

- Uhaitzandi
- Gabe

- Orhi
- Larra
- Lakora

ARABA:

- Herrera
- Joar

- Arkamo
- Baia
- Zadorra

Uztailak 20 larunbata

- "Xiberoa Garatzen! egitasmoa"ren aldeko herri-afaria Aitzaga elkartearen, 21:00etan hasita. Txartelak salgai Txiriboga, Aitzaga eta Benta tabernetan. Prezioa: 12 euro.

Uztailak 25 osteguna

- Santio Eguna. Zubietako jaiak uztailaren 24tik 31a bitartean.

Uztailak 31 asteazkena

- San Inazio eguna.

👉 GARAJEAK

- 🔧 Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424
- 🔧 Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- 🔧 Yamaha XJ 600 motoa salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185 telefonora deitu.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.
- 🔧 Galtzaragaina elkartearen bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreraren). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 pzta. Telf: 687 40 62 09
- 🔧 Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77 (arratsez).

👉 ETXEBIZITZAK

- 🔧 Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469
- 🔧 Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Deitu iluntzean. 943 36 02 13.
- 🔧 Etxe bat alokatuko nuke. Beste batekin konparitzeko prest. Telefonoa: 626 680 915.
- 🔧 Atxegalden pisu bat salgai. Beheko Kale, 6. 2 Esk. 943 37 17 59.

👉 LAN-ESKAERAK

- 🔧 Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 943 366485.
- 🔧 Emakume bat eskaintzen da astean hiru egunetan, goizez lau edo bost orduz lan egiteko. 943 36 43 10.

- 🔧 Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauzez. 943 371447 (Belen).

- 🔧 Emakume bat eskaintzen da, goizeko 9:00etatik eta 14:00etara ostalaritza edo etxeko lanetarako, derrigorrezkoa da gizarte segurantzaz. Interesatuak deitu 943 36 43 40 telefonora.

- 🔧 Pertsona bat eskaintzen da arratsalde bi orduz umeak zaintzeko. Telf: 647 220 966 (Mari Karmen).

- 🔧 Santixabeletan gustura egingo nuke lan. Beharrik baduzue, deitu 943 37 14 47 telefonora (Belen).

👉 LAN-ESKAITZAK

- 🔧 Udarregi ikastolan kirol begiraleak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 zenbakietara.
- 🔧 Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.
- 🔧 Tabernari bat behar da Txurru tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu 943 36 00 80 telefonora.
- 🔧 Pertsona bat behar dugu harategian lan egiteko, uztailaren eta abuztuaren. Tf: 943 37 20 34.

👉 BESTELAKOAK

- 🔧 Opel Corsa bat salgai, SS-AL. 300.000 pezetan, kuota eta transferentzia barne. 943 37 26 92.
- 🔧 Ford Escort Ghia TD familiarra salgai. SS-BB, CD ekipoduna. Telefonoak: 657 796 777 / 943 37 19 54.
- 🔧 Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- 🔧 Volkswagen Golf GTI II saltzen dut, SS-AL. 15'ilantak, irrati-kargadore Alpine... extrak. 2.000 euro. Tf: 649 322 873.
- 🔧 Dominadun kate bat galdu du duela 15 egun. Aurkitzen baduzu deitu 943 37 00 56 zenbakira.
- 🔧 Andatzen Nike markako zapatila txurra galdu zuten. Baita egurrezko katea, kolorekoa. Deitu 943 36 59 75.
- 🔧 Apirilaren 24an Kalezarren txapel bat galdu zen. Bilatu duenak dei dezala: 943 36 12 35 / 943 36 60 14.
- 🔧 Edozein ohetarako balio duen erabilgabetasun dagoen trapezio bat salgai. 943 835441 telefonora (Begoña).

- 🔧 Vespino AXL Motozikleta beltza, salgai. Telf. 943.365589.

- 🔧 Fagor markako frigorifiko bat saltzen dut. 5 urte ditu baina berria dago. 943 36 69 95 (Inma).

- 🔧 Kazadora bat galdu zen Askatasuna plazan eta bilatu zuenak Kinkildegian utzi zuen. Zurea bada pasa dendatik.

- 🔧 Eguzkitako betaurreko graduatuak galdu nituen maiatzaren 24an. Kiroldegitik frontoira bidean. Topatzen badituzu deitu 943 37 13 46, Maite.

- 🔧 Aterpe tailerrean uztaila eta abuztuaren zehar pintura klaseak hartzeko aukera. Tel: 943 365 975 (goizez).

- 🔧 Laredon apartamentua alokatzen dut hondartza aldamenean. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 79 52 80 / 656 717 745.

- 🔧 Scooter bat saltzen da, 125cc. Interesatuak dietu 607 23 32 55 telefono zenbakira.

- 🔧 Erloju bat galdu da. Esferan koloreak ditu eta atzean izena eta data. Bilatzen baduzu deitu, 943 36 11 26.

- 🔧 Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa. Tel.: 943 37 03 59.

- 🔧 Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.

Sanestebanak, datorren zenbakian

Uztailaren 26an kaleratuko dugu datorren alea. Eta beste gai batzuen artean, Sanestebanak nabarmenduko ditugu. Egitarua eta bertako albisteak bilduko ditugu gehigarri berezi batean. Beraz, badakizue. Sanestebanak aurten nola-koak izango diren jakin nahi baduzue, datorren Noaua! aldizkarian xehetasun guztiak jasoko dituzue.

Bien bitartean, ondo ibili Zubietako Santio festetan!

XXVI. Santixabel bertsopaper lehiaketa

1

Oraindik ere gogoan daukat
gau hotz ta ilun batean
goizeko laurak izango ziren
zalaparta bapatean
uniformedun hamabai zakur
zeuden etxeko atean
ta ez zetoztin pakean
hasi ziren atakean (bis)
gure semea eraman zuten
osti ta kolpe artean
geroztik bere argazki bat det
sukaldeko paretean.

2

Inpotentziaz oroitu ohi det
atxiloketa eguna
pentsatu nuen akabo gure
etxeko etorkizuna
kolpe bakarrez bota ziguten
kostata jaso genduna
gartzelan seme kuttuna
hau da gure ondasuna (bis)
ezerrek ez dit bete etxean
hark utzi zuen hutsuna
ta-etzait ixiltzen bihotz barruko
saminaren oihartzuna.

3

Urte dexente igaro dira
guztia gertatu zela
gure semeak igaro ditu
geroztik hainbat gartzela
nik dabilkidan mendeku nahia
ez da xamurtuko bela
ze egoera krudela
ezin naiz bizi horrela (bis)
denok dakigu eskubideak
zapaltzen dizkietela
arrain handiak arrain txikia
zapaltzen duen bezela!

4

Senideak eta lagunurkoak
muxu batez agurturik
beste behin ere errepidean
autobus hontan sarturik
oroitzapenak gira ta buelta
nabil ezin bazterturik
amets gaiztoan galdurik
eta ezin esnaturik (bis)
bidai latz honek une goxo bat
izaten du uztarturik
ama batentzat ez bait du inoiz
maitasunak distantziarik.

5

Kristal atzean aurkitu ohi det
semearen irrifarra
bi ukabilak estuturikan
soberan kemen ta garra
malkoak jausten hasi ohi dira
gorputz guztian dardarra
hau da sufritu beharra
gartzelan seme bakarra! (bis)
nahiz kristal batek ixil dezaken
semearen deiadarra
bere irriak ematen dizkit
bizi poza ta indarra.

6

Begietara begiratuaz
alkar ulertu ohi gera
ni ongi nago esanagatik
hartu ohi diot tankera
bizitu gabe badakit zein den
semearen egoera
egurra goitik behera
hankapetik hankapera (bis)
bertan uztea suerta liteke
semearentzat galera
neurea det ta nahiz asko kostat
ekarri nahi det etxera!

7

Burruka hontan murgildurikan
neure indar eta dohaiz
seme maitea defendatzeak
ekarri dit hamaika gaitz
jasan beharrak bidai luzeak
ta etsaien hainbat ekaitz
inguraturikan etsaiz
negar malkoz bustirik maiz (bis)
etxera bueltak inoiz ez dira
izaten aurpegi alaiz
errepresio sistema honen
biktima bat sentitzen naiz.

8

Nire moduan guraso askok
seme preso bat daukate
egurra jasoz, zigorrak jasoz
beti aurrerantz diraute
burruka hontan ez etsitzeko
laguntza beharko dute
apurtuaz hainbat kate
denok batera jo ta ke! (bis)
ta naiz bidean lurrera jausi
jarriko gerade tente
denon indarrez euskal presoak
Euskal herriratu arte!

Zubietako Herri
Batzarrak jai
zoriontsuak opa
dizkizue zubietar
guztioi!



Gora Santioak!

